

## EUSKALTZAINDIA'REN BATZAR-AGIRIAK

---

**Azpeiti'n, Udal-Etxean, 1925'ko Garagañila'ren  
25'an.**

Egun ontan Euskaltzaindiak batzaraldi ageria izan zuen, Etxegarai Karmelo jauna euskaltzain aukeratua-  
ren sarera zala-ta.

Añatsaldeko zazpirak ziran ta an zeuden beren alki-  
etan, Azkue maipuru zala, Azpeiti'ko Udalbubu edo  
Alkatea, Udalaren izenean; Elortza Julian jauna Gi-  
puzkoa'ko Aldundiaren aldeko bezela; Bañola ta  
P. Añegi aldun jaunak. Geroko lefotan ageri ziran eus-  
kaltzain jaun abek: Kanpion, Urkijo, Landeñetxe.  
Eguskitza, Olabide, Altube, Intza ta Lakonbe. Ondor-  
ren, gela nagusia ziero beterik, Azpeiti'ko eriozte ga-  
lanta.

Lenbizi Azpeiti'ko Alkate jaunak egin zuen bere itzal-  
dia, bertako Udalaren izenean, Euskaltzaindiari ongi-  
-etoñia emanik eta Azpeiti guziaren aburuz, abegi  
maitetsuena eskañirik.

Urñengo Elortza jauna jaiki zan bere alkitik ta onek  
ere agur beroa Euskaltzaindiari esanda, euskerazko  
gauzaganako adore biziña agertu zigun.

Beriala, Maipuru jaunak aitortu zion Etxegarai jau-  
nari itzaldirako baimena, ta onek, Eleizalde zanaren  
oroimenez itz goragañiak esanda, bikain ta osoro ego-  
ki edatu zuen bere gaya: *Mogel'dañak eta Euskera*.  
Ederki adierazo zizkigun Mogel'dañak euskeraren alde  
egindako lanak.

Etxegarai jaunari erantzuteko alde aurretik aukeratu zan Eguskitza euskaltzain jauna. Gaiñ-gañeko lana irakuñi zigun: ondo dakigu euskaltzain jaun onen lanak mami edereñ apainduta datozela beti, bañan lan au, erantzupen-itzaldi au, edereñ-edereñen gañetik ibilia da noski.

Besterik gabe, amaitu zan batzaraldi au, oiturazko otoitzez.

---

### **Azpeiti'n, Udal-Etxean, 1925'ko Garagarila'ren 26'an.**

Euskaltzaindia batzaraldi eskutuan bildu zan, ler aipatu diran euskaltzañak barenean dirala: Azkue jaun maipuru.

I.—Eguskitza jaunak Xurio'ren Kristau-ikasbide edc Dotriñaren azterpen lan bat irakuñi zigun, batez ere beronen aozkera ta itzen ikaspenari dagozkien iritxi-penetan ugaria.

II.—Azkue jaunak iragañi zien euskaltzañai, Gernika'ko Epaille-Nagusiak idatzi ziola, *Miren, Iñaki Ander* ta beste euskeraz dabiltzenen izenaz, iritxi bai eskaturik. Azkue jaun berak, Epaileri egindako ezkutitza irakuñi zigun. Ezkutitzak dio: izen oiek ez dau dela ondo sortuak, Azkue berak gañantidun deritzazkion iritxipenagatik. Garbi aitortu dio Epaille jaunari: ez diola Euskaltzainburua danez iritxipen ori ematen, bai ordea Azkue dan uts-utsez. Ezin zezakean besterik erantzun, gai onetzaz ez du oraindik Euskaltzaindiak erabakirik artu-ta.

Altube jaunak esan zuen: Etzitzaiola ondo iduritzen Azkue'k ofen laxtereñ egindakoa. Beste aldi berdiñetan, Azkue jaunaren oitura txalogañia izan dala, eze-